



Maialen Lujanbiok jantzi du Bertso Eskolaren txapela!

Bigarrenenez irabazi du Bertsolari Txapelketa Nagusia hernaniarrak, Aitor Mendiluze bertso eskolakidearekin buruz burukoan aritu ondoren. /2-6 eta posterra

UDALA

Industrialdeetako zaborren bilketa, Udalaren esku

2018ko urtariletik aurrera, Hernaniko Udalaren esku geratuko da, industrialdeetako zaborren bilketa. Kudeaketa hobetzea da Udalaren helburua. /7

BETERRI-BURUNTZA

KoopFabrika, berriro martxan

Datorren urterako ere, jarri dute martxan, Beterri-Buruntzan, KoopFabrika ekintzailatza programa. Izenematea zabalik daukate dagoeneko. /7

ERRUGBIA

Erasoko bonusa, Cisnerosen zelaian

Ezin izan zuen garaipena ekarri Hernanik, Cisnerosen zelaitik. Galdu egin zuten trikoloreek (39-25), baina erasoko bonusa ekartzea lortu zuten. /8

FUTBOLA

Hirugarren postura igota, erregionalak

Liderra Zubipen menderatu, eta sailkapeneko goiko postuetan sartu da Hernani, Ohorezko Erregionalean. Hirugarren jarri da, Bergara orain arteko liderrari 2-0 irabazi ondoren. /8

GAUR KRONIKAN

Bertso finaleko kronika /2-3

Bertso onenak /4

Protagonisten hitzak /5

Urumearrak BECen /6

Eliza, Goazen 4.0, Portu eta Elizatxo, zaborren greba /7

Eskelak, kirol tabla /8



943 55 58 46
616 28 78 67

EREÑOTZU - HERNANI

ZORIONAK

Hernaniko
bertso eskolari!


LARRE-GAIN
TOLARE SAGARDOTEGIA



BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA EGUNEKO KRONIKA

Maialen Lujanbio, Euskal Herriko txapeldun berriro

Hernaniko Bertso Eskolako ordezkariak erakustaldia eman zuten BECen. Aitor Mendi luze izan da bigarren. Unai Agirre finalaren animatzaile nagusietakoa eta Beñat Gaztelumendik ere ale bikainak utzi zituen.



JON ALTUNA IZA 'OXAN'

MAIALEN Lujanbiok jantzi zuen txapela atzo arratsaldean Barakaldoko BECen, Euskal Herriko 17garren Bertsolari Txapelketa Nagusia; goizean goizetik maixutasun handia erakutsi zuen, alde handia atera ziren finalean parte hartu zuten beste zazpi bertsolariei. Gero, Aitor Mendizluze Bertso Eskolako kide eta lagunarekin jokatu zuen buruz burukoa ere bikaina izan zen; oro har, final osoa ere bai. Beñat Gaztelumendi eta Unai Agirre zazpi-garren eta zortzigarren izan ziren maila oso altuko finalean, ale bikainak utzita. Batez ere Unaik piztu zuen zenbait unetan BECeko giroa eta bere bertsoaldi baten ondoren ikusi ziren ikusleen lehen olatuak BECen.

Sebastian Lizaso bertsolariak jantzi zion Maialen Lujanbiori Euskal Herriko 17garren Txapela, BECen bildutako 14.500 ikusleak txaloka zutik zirela. Honek gero etorriko direnei eskaini zien txapela. Sebastian Lizaso 1986ko txapeldunak ere kantatu zuen bere



Maialen Lujanbio txapeldunaren agurra kantatzen, eta atzean beste zazpi finalistak, bat eginda.

bertsoa, eta gonbidapena luzatu, Maialeni, txapelaz goza zezan ondorengo urteetan, «txapelak ere gozatu dezan, buru ahaltzu horretan». Aurretik Andres Urrutia euskaltzain buruak eman zion oroigarria, bide batez, Elkarrekin Euskaltzaindiari eskertuz 1958tik 1982ra Txapelketa Nagusia antolatzen egindako lana. Sari banaketan Maialenek bertsolari guztiei emandako besar-

kadak, estuak bezain hunkigarriak izan ziren, batez ere Amets aureko txapeldunari, Aitor Mendiluzeri eta Sebastian Lizasori berari emandakoak.

Buruz burukoan, bi bertsolariak erakutsi zuten daukaten maila altua. Elkarrekin parez pare ibili ziren ofizioan, izerdia hitzarekin bertso eder bana kantatu zuten, eta bien kartzelako lana ere bikaina izan zen.

Dena den, ordurako Maialenek abantaila handia zeukan bigarrenarekiko, egun osoan zehar pilatuta. Goizean eta arratsaldean erakustaldia eman zuen Maialen Lujanbiok. Guztira 72,5 puntuko aldea atera zion Aitor Mendiluze bigarren sailkatuari; buruz burukoan 13 besterik ez. Goizeko saioa amaitu eta gero, jada biak ziren buruz burukoan sartzeko hautagai nagusiak.

Aipagarria da, dena den, arratsaldean ariketa bikainak burutu zituztela Sustrai Colina eta Amets Arzallusek, eta ozta-ozta sartu zela Mendiluze buruz burukoan. Bi lapurtarrak oso hurbil izan zituen sailkapenean; Sustrai puntu erdira eta Amets bi puntura. 14 atera zizkion Igor Elortzari, eta 30, Aitor Sarriegiri. Amets Arzallus aureko txapelduna, oso hotz hasi zen goizean, eta gerora



OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA

ZORIONAK
MAIALEN, AITOR, BEÑAT ETA UNAI!

Gora Hernaniko bertso eskola!



Osiñaga auzoa, Hernani Tel. 943 55 68 94



Elkarrekin kantatu zuten aurreneko ariketan, zortziko haundian, Maialen Lujanbiok eta Unai Agirrek.

asko hobetu bazuen ere, ez zuen lortu bere mailarik onena ematea.

Bertso bikainak

Bertsolari guztiek erakutsi zuten daukaten maila eta bertsoaldi ederrak entzun ziren BECen, goizean zein arratsaldean. Ikusleek gozatu handia hartu zuten. Bukaeran hauek behin eta berriro eskertu zuten bertsolarien lan ona, eta txalo zaparrada luzeak entzun ziren, batez ere, sari banaketako agurretan.

Igor Elortza eta Aitor Sarriegi zuzenean agurtu ziren txapelketatik; agurrean esan zuten berriro ez dutela parte hartuko. Unai Agirrek, aldiz, agurrean aitortu zuenez, uztea pentsatua bazeukan ere, orain, behin BECeko ezagutu eta gero, zalantzak ditu: «Bertso Eskolan behin esan nuen azken txapelketa zana, baina aintzakotzat ez da hartu behar berroaldian esandakoa dana», eta ikusleei beste bat arte esan

ondoren, zera ‘leporatu’ zien «*dudan neukana zalantzan jarri izana*». Pozik egoteko moduan da Unai Agirre, lehen finalean bizi-bizi aritu baitzen ariketa gehienetan. Momentu batean baino gehiagotan piztu zuen BECeko giroa; esaterako, goizeko kartzelako lanean Puigdemonten paperean Bruselatik kantatu ondoren, «Libertat» oihuka jarri zituen BECen ziren kataluniarrak aurrena, eta ikusle gehienak ondoren. BECen ohikoak diren olatuen hasieraren aurrekaria izan zen une hori.

Arratsaldeko agurrean, «odolan partez dauzkat erri-mak zainean, (...) azken txanpa ematera olatu gainean» esan ondoren berriro hasi ziren olatuak.

Aitor Mendiluzek bere ‘klastea’ erakutsi zuen saio osoan zehar. ‘Eroso’ ari zela esan zuen finalaren aurretik, eta horrela aritu zen saio osoan. Final oso borobila burutu zuen; puntu erdiarengatik izan ba-

zen ere, merezimendu osoz sartu zen buruz burukoan, eta hor erakutsi zuen bere bertso-kera bikaina, eta iritsi den tokira iritsi bada, meritu handia berea dela. 2013koa ez zela kasualitatea, alegia, eta 2017an hobetzeko gai izan dela, lehenengo aldiz buruz burukoan sartuta.

Beñat Gaztelumendi, aldiz, ez zen berak nahi zuen bezain fresko ibili. Arratsaldeko agurra esanguratsua izan zen, «*goizean tira, ez naiz espabilatzen di-da, onenak orain etorriko dira*». Bere onena ez zuen eman. Baina ale bikainak utzi zituen, gogoratzeko modukoak, batez ere bakarkako lanetan.

Maialen Lujanbiok poltsikoan sartu zuen ikuslegoa. Bera aritu zen ‘bizi’, ‘eroso’ eta ‘fresko’. Momentu askotan ausart eta distiratsu ere bai. Badakigu oso exijentea dela bere buruarekin, eta izango duela zer zalantzan jarri, baina ikusleentzat, bertsoaldi borobilak osatu zituela ezin uka.

Amesten zuen saioa atera zitzaion; batez ere bikaina izan zen zortziko haundian eta txikian egindako hasiera. Maialen eta Unai elkarrekin hasi ziren zortziko handian; ofizioan lehenengo ariketa izan zen. Konplizitate handiarekin kantatu zuten eta edozein publizitate eramatearen alde-aurka ziren kirolari profesionalen eztabaida eder horrek piztu zuen saioa eta BECeko giroa, hasiera-hasieratik. Txikian Igor Elortzarekin burutu zuena ere ikusgarria izan zen.

Gero ariketa guztietan aritu zen ondo, eta bakarkakoetan jo zuen gailurra. Urte askoren ondoren Gabonetan etxera bueltatzen den alaba *yonki* ardi beltzaren paperean, bakarrrik ama izandakoarenean, edo prostitutarenean ale bikainak kantatu zituen; «*horrelakoa da prostituton papera, irabazten dugula ere galtzen ateratzen gera*». Bukaeran BECeko 14.500 ikusleak zutik zirela jaso zuen txalo zaparrada ikus-

MAIALEN LUJANBIO:

AZKEN AGURRA

Herri hau herri egin al dugu, ze eman du bizikidetzak? Zenbat eman du euskalduntzeak? Ez behar beste guretzat. Berrogei urte ta garaia da egurasteko ametsak. Akaso hortan bertsolaritza ona da adibidetzat; beti ez du goitik behera egiten tranmisioaren trentzak. Guk betik gora ikasi dugu ta zabaldu muga ertzak. Lehengoekin ta gaurkoengandik txapela hau gerokoentzat.

garria. Ez zen txikiagoa izan, finaleko zortzi bertsolariei emandakoa.

Maialen Lujanbiok atzo lortutako txapela, Hernanira ekarritako hirugarrena da, 1936an beste Lujanbio batek, Txirritak jantzi zuen eta 2009an Maialenek berak. II

Sailkapena

- Maialen Lujanbio1.756
- Aitor Mendiluze1.680,5
- Sustrai Colina1.137,5
- Amets Arzallus1.136
- Igor Elortza1.124
- Aitor Sarriegi1.107,5
- Beñat Gaztelumendi1.076,5
- Unai Agirre1.072,5

ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A

**Zorionak Maialen,
Unai, Aitor eta Beñat!**

Aupa Iraulio Panttalone bertso eskola!

Iturriaga kalea, 10. Hernani
Tel: (943) 33 02 91

www.errioguardaenea.com

■ BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA BERTSOZ BERTSO

Zortziko, puntu eta kartzela, txarrik bat bera ere ez zela!

Maila ikaragarri altua izan zen atzokoan BECen, eta bertso onak entzun ziren egun osoan. Batzuekin gehiago gozatu zuen publikoak.

EZIN esan oraingoan umorerik izan ez zenik. Ederki gozatu zuten bertsozaleek goizean, zortziko haundian, txikian edota puntuka finalistek izandako ateraldiekin.

Zortziko haundian, adibidez, kirolari profesionalaren paperean aritu ziren, Lujanbio eta Agirre, publizitatea egitearen alde eta kontra. Azken bertsoak hauek, Maialen hasi eta Unaik erantzun:

Nahikoa diru badezu behintzat hortan etzera labaintzen. Nik hala ere segitu nahi det banku kontuak bikaintzen. Ta hor azaltzen naiz kremekin edo txanpuaz ilea zaintzen, futbolarioi ez digute ta, pentsatzearen ordaintzen.

Berak zipitzik ez du pentsatzen gogorra izan da gero, nere burmuinak kontu honekin orain daude bero-bero. Bana sekula saldu ez naizenik ere etzazu espero sagarduana igual ingo det Unaik eskatu ezker.

Zortziko txikian ere umoretik segi zuen Lujanbiok, Elortzarekin; bizilagunen paperean. Hauek tarteko bertsoak, Elortzarekin hasita:

Batzuentzat bizitza, bero ta maitasun. Besteontzako berriz, sasi eta asun. Sexua suerte dela, hala dizut entzun, ta antza dena zeuri tokatu zitzaizun.

Izan ere zu zaude hain muker ta erkin, ez dezu ligatuko jarrera horrekin. Baina bart zure kabuz ahal zenuen ekin gure etxeko efektu espezialekin.

Logure nintzen baina belarriak arin, alboan bazen zenbait sexu joko gordin. Diozu nik gozatu nezakela berdin ta zeñek esan dizu enuela egin.

Tankeratsu aritu ziren, umoretik, Unai Agirre eta Aitor Sarriegi, bideo kontsolarekin borrokan dabilzan aita-semeen paperean. Eta baita ere Aitor Mendiluze eta Sustrai Colina; maleteroan zeramazki-en hezurren bueltan koloreak gorritu arazi zizkion Colina arkeologak, Mendiluze guardia zibilari.

Bakarka, hunkitzea helburu Goizeko kartzelakoan eman zioten buelta giroari, eta iritsi ziren bertso hunkigarriak. Gaia: Ate-tik sartu zarenean, ixildu egin dira denak. Maialen Lujanbioren bigarren bertsoa, hauxe:

Jada ez dira ez larogeiak baina neri errepara; azala zimel, kolore zuri, ai! inork ez nau anpara. Badakizue ze hauts horizta sartu ohi den zainetara, haren bila ta harekin beti berdintsu zein eratar.

Hainbeste oker egin dutenen hau jakina ez al da ba, burua makur, ta lotsaz gorri jo dut etxeko aldaba, amari hainbeste gauza lapurtu nizkion lehen eta hara, zure pitxirik ez dakart baina hemen da zure alaba.

Beñat Gaztelumendik ere erakutsi zuen, bakarkakoan ederki moldatzen dela:

Azala beltzarana, urteak dauzkat hamabi. Behin bisita egin nien aitari eta amari. Euskaraz ikasi nuen, futboleak enaiz nagi, diferentea naizela zuei dizuet nabari. Gu soilik umeak gara, gure hezur ta haragi, norbera bere etxekoa gaur igualak ez gara bi. Zuei begira jarrita, badauzkat duda ugari ez ote zareten zuen beldurak gordetzen ari.

Eta goiza borobildu zuten Unai Agirrek Puigdemonten paperean, eta Mendiluzek honakoarekin:

Hogeita laua Gabon gaua da hala izaten da urtero, zazpi urtetan ez naiz etorri egina egina bego. Aurten ausartu naiz edo, sabela urduri, bero, ta etxean sartu ta gero anai-arrebak denak ixilik bertan agertu ezker, gonbidapena egin bai baina ez ninduzuen espero.



Bertso ederrak bota zituen Aitor Mendiluzek, finalean.

Gorakada, arratsaldean

Bazkalondorenean indartutako, are gorago egin zuen mailak. Elortza eta Gaztelumendi hasi ziren sei puntuko motzean. Medikuntza ikaskideen paperean, eutanasia leporatuta inhabilitatutako irakaslearen aldeko sindaurak biltzeko arrazoiak eman zituen Añorgarrak:

Ikaskide ilustrera, ikasgaiari lustrea, elkartasuna zuretzat al da gutxi ikustea? Ez al da etika haustea hori da nere ustea, ezin bizirik dagoenari hiltzen ez uztea.

Buruz burukoa

Askok kinielak asmatu zituzten, eta Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze pasa ziren buruz burukora. Are gehiago igo zuten maila, eta ikus-entzuleak gozatua hartzen ari zirela nabari zen txalo zaparraden oihartzunean.

Gaia haxe zuten: 'Bada ordu edi, auto bat atzetik duzula'.

Mendiluze «susmagarri izatera ohitu» denaren paperean sartu zen. Horrela bukatu zuen bigarren bertsoa:

herrigintzatik eraikitzeo ahaleginean nabil bai. Agian hori da arazoa, ez dute eraikitzerik nahi.

Lujanbio, berriz, bezero baten kotxean, ertzainengandik ihesi dabilen prostitutaren paperean sartu zen.

Miribillako rotondan errekarritz errekarri bezelaxe egin ditut mila buelta errukarri. Geratzen dira kotxeak ta gu begira elkarri, beraiek 'etorri' esan, ta guk 'dirua ekarri'. Nahi bezelako bezero atseginik ez da sarri, ta askotan gixan orain autoan estu ta larri, ertzain auto bat atzetik eta sirenak aldarri, baietz bera libre utzi ta neri isuna jarri.



mikel armendariz
proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422 - 20.120 HERNANI

**Zorionak
Maialen!**

**Gora
Hernaniko
Bertso Eskola
eta
bertsozaleak!!**

Zorionak Hernaniko bertso eskolari!



dobEra
EUSKARRA ELHARTZA

URUMEAKO
kronika

URUMEAKO
kronika

2017ko abenduaren 18a, astelehena



UDAL Euskaltegia

● / 2017-12-18 astelehena /



“Hiru hilabeterako etorri nintzen, eta, Euskal Herriak txoratuta, sei urte daramatzat”

// II

HERNANIN, komertzio txikietan guztia eskura



// III

“Errugbiak gauza asko erakusten dizkizu bizitzarako”

// IV



AITOR URKIA

■ ELKARRIZKETA

“Hiru hilabeterako etorri nintzen, eta, Euskal Herriak txoratuta, sei urte daramatzat”

Xebas Ustarroz Dabadie musikari argentinarra da. Hernanin bizi da orain dela sei urte.

BERE birraitona eta birramona euskaldunak ziren. Musikari familian jaio zen, Necochean, Argentinan. Bere haurtzaroko oroitzapenak, Euskal Herriko kulturarekin lotutakoak, hauek dira: Necocheako Euskal Etxea eta amatxuren kontaketak. Xebasek eta taldekideek fusio-natu egin dute argentinako eta Euskal Herriko soinua. Gurekin euskara ikasten ari da Hernaniko Udal Euskaltegian eta hona ekarri duen bidea ezagutu nahi izan dugu.

Noiz eta non entzun zenuen euskarazko lehen hitza?

Ez naiz ondo gogoratzen baina uste dut, Euskal Etxean edo amatxuren etxean. Uste dut ikurriña izan zela lehengo hitza, igual baita ere musikaren inguruko hitz batzuk. Gure herrian, Necochea, Euskal Etxe bat daukagu, birramona eta birraitonaren garaian eraikitakoa, euskaldunak elkartzeko eta hemengo kultura eta ohiturak mantentzeko.

Zer dela eta etorri zinen Euskal Herrira?

Batez ere, musikagatik etorri nintzen, baina lagunak bisitatzeko asmoa ere banuen. Hiru hilabeterako etorri nintzen, eta Euskal Herriak txoratuta, sei urte daramatzat.

Noiz hasi zinen euskaraz hitz egiten? Zergatik?

Hernanira bizitzera etorri nintzenean, hasieran, abestiaren letrak ulertu nahi nituen eta galderak egiten hasi nintzen “zer esan nahi du letra honek?” edo “abesti honek...?” eta gero egin nuen urte bat AEKn; kalean ere, lagunen artean euskaraz egiten hasi nintzen. Niretzako oso garrantzitsua izan zen he-



Xebas Ustarroz

Niretzako oso garrantzitsua izan zen hemengo ohiturak, hemengo kultura, hizkera ... ikastea. Orain bigarren diska prestatzen ari naiz Hego Haizea taldearekin.

mengo ohiturak, hemengo kultura, hizkera... ikastea. Azken finean, nola Euskal Herrian nagoen, gustoago sentitzeko eta integratzeko ikasi dut.

Noiz eta non hasi zinen euskara eta musika argentinarra fusionatzen?

2009an Avellanedako kontserbatorian, Buenos Airesen, musika ikasten ari nintzen, eta, kasualidadez, Oialumeko neska batekin topo egin nuen, Joana Ortega Barrenetxea; pianoa ikasten ari zen, eta ni gitarra. Kontserbatorioan, komboa izeneko asig-naturan, biok elkarrekin geunden, eta orduan hasi ginen gu bion musikarekin, erritmoekin fusioa egiten.

Norekin jotzen duzu, eta ze

instrumentu?

Musikari asko bezala, hainbat proiektutan nago, baina garrantzitsuenak niretzako hauek dira: batez ere “Hego Haizea”, Joanarekin sartutako taldea, baina “Bitartean Folk”, “Oskarbi” eta “Piano bat bertsoatan” proiektuetan ere sartua nago. Gitarra eta perkutsioa jotzen ditut eta ahotsa ere banaiz.

Abesti berriak dira, moldaketak dira, zer dira?

Denetatik, izan ere, abesti berriak dauzkagu eta horrez gain, moldaketak egiten ditugu, adibidez letrak euskeraz argentinako erritmoekin, chacarera-rekin, milongarekin, tangoarekin... eta Euskal Herriko abesti zaharrak ere berritu ditugu, Xabier Leteren *Frantsez euskal-*

dun bat, Maitia nun zira herri-koia....

Euskal abeslariren baten eraginik baduzu? Eta beste abeslariren batena.

Argentinarra naizenez, nere eraginak argentinarrak dira, noski. Adibidez, Carlos Aguirre, Atahualpa Yupanqui, Violeta Parra, Raúl Carnota....

Euskaldunak ere gustokoak ditut: Tapia, Iñaki Salvador, Imanol... Eta horien eraginik ba ote daukadan jakiteko, hobere-na da gure musika entzutea.

Zertan ari zara orain?

Orain bigarren diska prestatzen ari naiz Hego Haizea taldearekin. Eta espero dugu hurrengo urterako kalera ateratzea. Gabonetan Argentinan gira bat egingo dugu, gure lehenengo eta bigarren diskoen abestiekin. Baina, lasai, hemen ere arituko gara.

Eta hemendik aurrera, zer?

Hego Haizea taldea, gure hizkuntzaren eta gure erritmoen ispilua da, hau da, interkulturalitatearen isla, eta hori egiten jarraituko dugu. ■

Egileak:

BI mailako taldea



■ ERREPORTAJEA

HERNANIN, komertzio txikietan guztia eskura

Maiatzaren bukaeran, Hernaniko kaleetan paseatzen genbiltzala konturatu ginen komertzioetako erakusleihoak beltzez estalita zeudela. Zergatik ote zeuden? Zer gertatzen ari da gure herrian? Erantzun eske BERRIAK merkatarien elkartera jo dugu.

DAKIGUNEZ, Hernanin 90eko hamarkadan krisi handi bat izan zen. Hainbat lantegi itxi ziren, tartean Orbegozo. Eta hori gutxi balitz, Galarretan EROSKI taldeak hipermerkatu bat jarri nahi izan zuen. Hori dela eta, herriko komertzioetan salmentak asko jaitsi ziren. Egoera horri aurre egiteko hainbat manifestazio egin ziren herrian. Eta, azkenean, merkataritza batzuen artean erabaki zuten elkarrekin bat sortzea. Horrela, BERRIAK elkarteak 1993 urtean agertu zen, Hernaniko komertzioa bultzatzeko. Hasi-eran, BERRIAK 50 komertzio osatuta zegoen. Geroago, ostalaritza ere elkartu zen. Gaur egun, 95 bat bazkide daude.

Euro bat gastatzen badugu denda txiki batean 3€ bihurtzen da herrian.

Elkarteak hiru arlo desberdinetan lan egiten du. Lehenengoa, defentsa sektoria, adibidez, merkataritza batek edo ostalari batek arazoren bat badauka BERRIAK-era hurbiltzen da. Bigarrena, dinamizazioa, hau da, noizean behin kanpaina bereziak antolatzen ditu Hernaniko komertzio bultzatzeko, besteak beste, bakailao astea, stock astea, erakusleiho beltza eta zozketak... Eta, bukatzeko, hitzarmenak lortzea erakundeekin.

Kate handien atentzioaren aldean erosleak atentzio pertsonala, familiarra eta konfiantza aurkituko du.

Ohitura aldaketen ondorioak
Elkarteak konturatu da azken hamarkada hauetan ixten diren 10 dendatatik 5 bakarrik berritzen direla. Gainera, betiko komertzioa desagertzen ari da, adibidez, drogeriak, burdindegiak eta ultramarino dendak. Arazoetako bat da, denda horien jabeak jubilatzen direnean, normalean, bere negozioak ez duela jarraipenik izaten.

Ohitura aldaketak ere asko nabaritzen dira. Alde batetik, gaur egun, jendearentzat askoz errazagoa da autoa erabiltzea eta merkataritza guneetara edo Donostiara joatea, Hernanin bi edo hiru pauso ematea baino; leku horietan arropa kateak daude eta inork ezin du konpetitu haien prezioekin. Bestetik, online dendak kalte handia egiten ari dira sektore guztietan. Azken urte hauetan, Amazon bihurtu da erreferente, bertan denetik dago eta, horretaz gain, eskaera oso azkar iristen da gure etxera. Komertzio txikientzat oso zaila da horrekin lehiatzea.

Hernaniko dendetan, batez ere, 40-50 urte baino gehiago



Gabonetako kanpaina prest dago.

Herrikoak bertako dendetan buelta bat ematera animatu nahi ditu kanpoan erosi baino lehen.

dutenek erosten dute; Gazte-agoak, berriz, kontzientziatu egin behar dira. Azken finean, nolako herria nahi dugun galdetu beharko genioke geure buruari. Argi eduki behar dugu, euro bat gastatzen badugu denda txiki batean hiru euro bihurtzen dela herrian. Horretaz gain, lanpostuak sortzen dira. Zer gertatuko litzateke ondoko tabernekin denda txikiak desagertuko balira? Eta zer gertatuko litzateke ondoko elikagai dendeekin tabernak desagertuko balira? Pentsatu behar dugu horrek guztiak bizitza ematen diola herriari, lo egiteko herria bakarrik ez izateko.

Hernanin edozein motatako komertzioa aurki dezakegu. Kate handietako atentzioaren aldean erosleak atentzio pertsonala, familiarra eta konfiantza aurkituko du. Gainera, herriko dendetan erostea ez da bakarrik hori, erosteko esperientzia baizik. Esperientzia

hori da, adibidez, dendariarekin hitz egitea, arazoak badaude konpontzea eta abar. Eta hori guztia pentsatu behar dugu beste leku batera joan aurretik.

Kanpainak herritarrak sentsibilizatzeko

Herritarrak sentsibilizatzeko BERRIAK-ek urtean zehar hainbat kanpaina antolatzen ditu. Besteak beste, Gabonetako kanpainak, stock azoka, zozketak. Horretaz gain, HERNANI TXARTELA dauka erosketak errazteko; txartela erabiltzen duenak hainbat abantaila izango ditu. Kanpaina horien ondorioz, jendea eta erakundeak poliki-poliki sentsibilizatzen ari dira; esa-

terako, udalak bere egutegia- ren lehiaketan, institutuak eta Langile Ikastolak bere zozketetan.... Hernaniko dendetan erosteko bonoak banatzen dituzte, sariak metalikoan eman beharrean.

Elkarteak, azpimarratu dugutenez, herrikoak bertako dendetatik buelta bat ematera animatu nahi ditu kanpoan erosi baino lehen; izan ere, askotan jendea harrituta gertzen da dagoen aukerarekin.

Horretaz gain, BERRIAK-ek Gabonetan lelo berezi hau bultzatu nahi du: "GABON HAUTAN ERABAKI HERNANI". ■

Egileak:
B2 mailako taldea



■ KIROLA, ERRUGBIA ETA BALOREAK. MATTIN COLLADO GARCIA

“Errugbiak gauza asko erakusten dizkizu bizitzarako”

Errugbi jokalaria da Mattin Collado Garcia. Zortzi bat urterekin hasi zen errugbian, azken bi urteotan Espainiako Ohorezko Ligan jokatu du Hernani Errugbi Taldearekin.

Txiki-txikitatik erakutsi zuen errugbirako zaletasuna, ez da gaur egungo kontua, ez horixe! Betidanik izan da kirol zalea. Txikitan judoan eta errugbian ibilia da Mattin, eta bietan ondo moldatzen bazen ere, hamahiru urterekin aukera egin behar eta errugbiaren aldeko hautua egin zuen, judoa bazter utzita. Izan ere, Mattinen esanetan: “Uste bainuen errugbiak, talde kirola izanda, ekarpen handiagoa egingo zidala”.

Talde lana eta nork bere burua kontrolatu

Eta horrela izan da. Kirol honek gehien gustatzen zaiona zera da: batetik, bere buruari erronka jarri eta hura gainditzeko saiakerak; bestetik, taldekideekin harremanak estutu ahal izatea. Horretaz gain, errugbitik bizitzarako irakasbideak eta hainbat balore ere bereganatu ditu; batez ere, talde lanean aritzea eta emozioak kontrolatzen ikastea. Labur esanda: “Errugbiak gauza asko erakusten dizkizu bizitzarako”.

Hernaniko jokalaria guztiak amateurak

Mattinek esan digunez, Ohorezko Mailako Ligan, talde batzuek profesionalak diren jokalaria fitxatzen dituzte. Beraz, badira batzuk errugbitik bizi daitezkeenak, beste kirol batzuetan baino gutxiago, hala ere. Hernaniko taldean, ordea, egoera zeharo desberdina da. Izan ere, “hemen profesional bakarra entrenatzailea da, jokalaria ere badena, aldi berean. Besteok amateurak gara”, aipatu du kirolari hernaniarrak. Horretaz gain, erdi-mele gazteak adierazi digunez, gehienak harrobikoak izan arren, taldean Iparraldeko jokalaria ere badaude. Frantzia, gauza jakina denez, maila handia dago, eta han jokatzeko askoz ere zailagoa da hemen baino. Hori dela eta, Euskal Herrira etorri dira aukera gehiagoren bila eta, bide batez, euskara hobetzera, Hernaniko taldean Iparraldekoetan



baino gehiago egiten baita euskaraz.

Lana eta errugbia uztartzea ez da erraza

Ez da erraza errugbia eta lana uztartzea, Mattinek dioenez. Bi astetik behin kanpora joaten dira jokatzera: Madrilera, Bartzelonara, Sevillara... autobusez bezperan irtenda. Horrelakoe-tan, bere hitzetan, ez du batere gogoko izaten, etxera berandu iritsi -batzuetan ordu txikitan- eta partidaren biharamunean goiz esnatu eta jaiki beharra. Badira jokalaria batzuk errugbiari uko egin behar izan diotenak, lana dela eta ez dela. Eta beste batzuek, Mattinek esan bezala, lana galtzeko arriskua izaten dute.

“Haserreak mokadu bat janda ahaztu egiten dira”

Betidanik izan du errugbiak kirol agresiboa den ospea. Mattinek ere horrela dio, baina, hala ere, haserreak partidetan bakarrik gertatzen direla aitortzen du.

Gainera, partidetan haserretzen badira ere, partida bukatutakoan, denak ahaztu, eta elkarrekin joaten dira taldekideak eta arerioak mokadu bat jan eta zerbait edatera. Dena dela, partidaren ondoko une gozo horiek ez dute alde batera

uzten lesionatzeko arriskua, errugbia kontaktu handikoa baita. Hala gertatu zitzaion Mattini orain dela aste batzuk, belauneko lotailu gurutzatuak hautsi baitzituen; lesio larria eta ohikoa, dudarik gabe. Eta hemendik gutxira egingo dioten

ebakuntzaren zain dago. Espero dezagun den-dena ondo ateratzea eta laster berriz ere Landeren ikustea. ■

Egileak:
C1 mailako taldea





Oparitu Doberako produktuak!



MARGOTZEKO IPUINA OILAR TXIKIA (2017)

Egilea: Jexux Eizagirre Portillo
Ilustrazioak: Alai Zubimendi
Hizkuntza: Euskara
Prezioa: 2 €
Ipuin pedagogikoa, interaktiboa eta sormena lantzeko balio duena; margotu, marraztu, pegatinak itsatsi, irakurri eta idatzi!



KOMIKIA HESOLA (2017)

Ilustrazioak: Alai Zubimendi
Hizkuntza: Euskara + Katalaniera + Arabiera
Prezioa: 2 €

Hesolaren kanta komikidan bihurtuta.

ESKaintza berezia:
5 ipuinak 20€tan



MOZOLOAREN BIDEA (2016)

Egilea: Jexux Eizagirre Portillo
Iturria eta jatorrizko egilea: Hovhannes Tumanyan
Ilustrazioak: Ainara Azpiazu Aduriz
Hizkuntza: Euskara + Armeniera
Prezioa: 10 €

Ipuina armeniarra da. Nekazari pobre batek, bere egoera tamalgarritik ateratzeko asmoz, Jakintsuaren bila jotzen du. Ibilbide horretan, hainbat pertsonaiaarekin egingo du topo.



ZOZOMIKOTEAK (2015)

Egilea: Jexux Eizagirre Portillo
Ilustrazioak: Alai Zubimendi
Hizkuntza: Euskara
Prezioa: 10 €

Artzaina eta urtaroen arteko tirabirak kontatzen dira bertan. Zozomikoteak, harro keriaren inguruko ipuina da.



CHERTAT ETA LEHOIA (2015)

Egilea: Jexux Eizagirre Portillo
Bertsio arabiarra: Cheij Ahmed Bahia
Ilustrazioak: Abdi Ami Omar
Hizkuntza: Euskara + Arabiera
Prezioa: 10 €

Ipuina sahararra da. Chertatek eta lehoiak tratu bat egiten dute. Baina tximua sartzen da tartean, eta...

BURBUNAK ETA ETSAYAK (2015)

Hernaniko natura eta ahozko ondareari tiraka



Egileak: Eñaut Agirre, Iñaki Sanz-Azkue, Jon Mari Beasain, Joxan Ruiz.

Hizkuntza: Euskara (azpituak: euskaraz, gaztelaz, ingelesez)
Prezioa: 5 €

Animalia eta landareen izenak, bizimodua, siniskeriak, mitoak... 25 protagonistek argituko dute zer diren burbunak eta etsayak.

ALDABA JOKA (2003)

Hernani, XX. mendea ahozko historia txikia. (Liburua + DVDa)



Egilea: Urko Apaolaza
Argazkiak: Dobera Euskara Elkartea, Hernaniko Udal Artxiboa, Kutxa Fototeka.
Hizkuntza: Euskara
Prezioa: 2 €

Hernaniko historia txiki honen oinarrian 27 herritarren kontakizunak daude.

ERRITMOA, KAZETARIAREN BATUTA (2012)



Egilea: Jexux Eizagirre Portillo
Hizkuntza: Euskara
Prezioa: 2 €

Batez ere kazetariel, baina baita euskaraz idatzi nahi duen orori zuzendutako liburua da, erritmoak idaztean ere duen garrantzia azaltzen duena. Bertan, Hernaniko Kronikaren esperientzia kontatzen da.

■ BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA ERREAKZIOAK



Zortzi finalistak azaldu ziren gustora, taldearen giroarekin eta talde bezala osatu zuten saioarekin.

«Txapela hau lan gogor baten emaitza da»

Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi eta Unai Agirre lasai, baina «nekatuta» agertu ziren prentsurrekora. «Asko gozatu dut eta emozionatu naiz, baina finala oso gogorra da» adierazi zuen Agirrek.

MAIALEN Lujanbio aurretik zela, txaloka hartu zituzten kazetariak, zortzi finalistak, ondorengo prentsurrekoan. Denak ere nekatuta, hitz egiteko baino atsederako zeuden. Hala ere, Maialen Lujanbio txapeldunak hartu zuen lehendabizi hitza, eta «txapela hau lan gogor baten emaitza» dela esan zuen. Eta ez da gutxiagorako. Unai Agirrek ere finalaren gogortasuna azpimarratu zuen: «goizeko saioa amaituta dutxa bat eta guzti hartu behar izan dut». Hala ere, denek gozatu zuten, taldeko giroa azpimarratuz.

Saioaren inguruan, Maialen ez zen gauza, edo behintzat ez zuen bere burua egokiena ikusten, hori baloratzeko garaian. «Bertsotan ari garenak, ez gara egokienak izaten horretarako. Nik asko gozatu dut eta saioa niretzako izugarria izan da, ederra; eta orokorrean, saioa maila onekoa izan dela uste dut».

Iritzi berekoa zen Mendiluze: «ondo joan da». Eta batez ere jendearen jarrera eta emozioa goraipatu zituen andoaindarrak: «oso mimatuta sentitu gara. Talde bezala, bai antolakuntzatik eta publiko aldetik goxo tratatu gaituzte, baina exajeraziorik gabe. Sentsazio oso politak izan ditut eta giroa ederra izan da. Beste urteetan hainbeste nabaritu ez dudana goxotasuna. Oso mimatua».

Unai Agirreren lehen finala izanagatik, prentsaren aurrean ere eroso nabaritu zitzaion. Postuari garrantzirik eman gabe: «ez zen garrantzitsua niretzako, eta aurretik ere esan nuen. Sentsazio onarekin geratzen naiz, baina kanpotik ezin liteke imajinatu zer sentitzen den finalean. Hasteko arraro sentitu naiz, baina berehala ohitu ere bai. Eta gehien nabarmenduko nukeena finaleko gogortasuna da. Ez nuen espero horrelakorik».

Zortzi finalisten taldeko giroa goraiatu zuten, eta Unai Agirrek ere, ildo beretik: «hauekin kantatzea poz handia da». Aitor Sarriegi eta Igor Elortza gogoratu zituen, bere azken finala zela esan zutelako biek. Eta momenturik hunkigarriena, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze buruz burukorako sailkatu zirenean sentitu zuen: «izugarri emozionatu naiz. Hernaniko Bertso Eskolako bi bertsolariak lehenengo bi postuetan ikustea itzela izan da. Asko emozionatu naiz».

«Asko daukat ikasteko»

Beñat Gaztelumendik asko duela ikasteko nabarmendu zuen: «Maialenekin bertsotan aritzea bere bigarren txapelan ohore handi bat izan da». Saioari

denok ere ongi eutsi ziotela pentsatzen du. Hala ere, bere lanari dagokionez, esan zuen ez zela «nire egunik onena izan». Honela, «asko ikasteko daukat oraindik. Gaztea naiz eta denbora bada-go». Alboan dituen lagunak bide hori egiteko egokienak direla ere azpimarratu zuen aňorgatarrak.

«Kriston emozioa eta poza sentitu dut»

Prentsurrekoa txapeldunaren hitzekin amaitu zen, eduki zituen sentimendu edo emozioez hizketan. «Saioan zehar bidean, lanean aritu gara, gozatzen neurri batean, baina egintza horretan irris-

tatzeko arriskua egoten da, eta onena utzi nahi duzu. Lan ederra egiten saiatzen zara eta ez duzu besterik pentsatzen. Ahalik eta lan onena egiten. Hala ere, ez dut lehorra izan nahi, eta kriston emozioa eta poza sentitu dut txapeldun naizela esan dutenean. Oso pozik nago, eta lan gogor horren emaitza dela sentitzen dut».

Amets Arzallusek ere hitz egin zuen prentsurrekoan. Txapeldun ohiak sentsazio «gazi-goza» eduki zituen: «taldeko begitik partaide bezala ona, baina pertsonalki neure buruari eskatzen nionera ez naiz iritsi». ■

Izkiña jatetxea Goizueta

ZORIONAK

HERNANIKO BERTSO ESKOLARI!

MENUAK / BOKATAK / AFARIAK
948 51 41 02

BERTAKO PRODUKTUAK
Etorri Goizuetako fauna ezagutzera!

■ BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA URUMEATARRAK BEC-EN



Ederki pasa zuten bertso txapelketaren finalean, astigartarrek.

Astigarragatik BECera, finalaz gozatzer

Astigarragak ere bere txokoa bete zuen atzo, Barakaldoko BECen, Bertso Txapelketa Nagusiaren bihotzean. Talde haundi bat eseri zen elkarrekin harmailetan, finalaz elkarrekin gozatzeko; eta beste asko ere izango ziren, areto osoan zehar banatuta. ■



Hernaniar gazte asko bertaratu ziren, herriko finalistak animatzera.

Hernaniar talde haundiak, harmailak betez

Oholtza gainean bakarrik ez, harmailetan ere protagonista izan ziren hernaniarrak, atzo. Gazte eta heldu, adin guztietako herritarak bertaratu ziren, han eta hemen ageri ziren, herriko bertso eskolako lau finalistak animatzera. ■



Koadrila majoa bildu zen Goizuetan ere, bertsolaritza onenaz goatzera.

Tropelean Barakaldora, goizuetar mordoxka

Goiz asko abiatu ziren goizuetarrak atzo goizean, hainbat kotxe hartu eta Barakaldora bidean jartzeko. Tropelean joan zen goizuetar mordoxka, bertsolaritzaren festa haundienaz goatzera. BECeko goikaldeko harmailetako batetik ikusi zuten saioa, guztiek adi-adi. ■



Adi-adi jarraitu zituzten hernanien bertsosaldiak, herrikideek; Juanjo Uriak tartean.

Juanjo Uriari, errekonozimendua

Gertutik, aurreneko filetatik jarraitu zituzten hernanien bertsosaldiak, hainbat hernaniarrek; horietako bat, Juanjo Uria. Aipamena eta errekonozimendua egin zioten Unai Agirrek eta Aitor Mendiluzek, azken agurrean. ■

Idatziz ere babesa, estreinako finalean

Txalo eta animo asko jaso zituen Unai Agirrek, bere aurreneko finalean; baina pankarta ugarirekin ere eman zioten babesa, hernaniarrari. Sagardogileena eta aitarene herriko lagunek, horietako bi. ■



Pankarta ugari jarri zituzten BECeko harmailetan; eta horietako asko, Unai Agirre animatuz.

■ ZABOR KUDEAKETA

Industrialdeetan sortzen diren hondakinen gaikako bilketaren kudeaketa, berriz Udalak

Hernaniko 400dik gora enpresen hondakinak Garbitania Enpresa Publikoak kudeatuko ditu, 2018ko urtarrietik aurrera. Lantegienak ere, jatorrian sailkatzea eta modu egokian egiten dela sustatzea da helburua.

DATORREN urtarrietik aurrera, Udalaren eskumena izango da industrialdeetan sortzen diren gaikako bilketaren kudeaketa, eta Garbitania Sozietate Publikoaren bidez kudeatuko du bilketa hori, herriko etxebizitzetako eta saltokietako egiten duen enpresa publiko beraren bidez, alegia.

Egun San Markos Mankomunitateak egiten du industrialdeetako hondakinen kudeaketa. Hernaniko Udalak Zero Zabor bidean egiten duen beste urrats bat da, «urrats garrantzitsua, gainera», adierazi dutenez: «San Markos Mankomunitateak orain arte egiten duen bilketaren emaitzak aise hobetu nahi ditu Udalak. Enpresa gehiagotara iristea eta hondakinak jatorrian hobeto jasotzea da erronka».

San Markos Mankomunitateak egun burutzen duen bilketaren datuak eman dizkio

Organikoaren bilketan salto haundia egitea espero da, enpresen %11ean egiten da

Hernaniko Udalari. Horren ondoan zehazten dira Garbitaniak egun Usurbilgo enpresetan egiten duen bilketaren laburpen datuak.

Organikoaren bilketa

Egun San Markosek Hernaniko enpresa guztien %11tan soilik jasotzen du frakzio hori (420 enpresatik 46tan); Garbitaniak Usurbilen enpresa guztien %40 jasotzen du (133 enpresatik 53tan). Hernaniko enpresen %89ak organikoaren atalarekin zer egiten duen ez dago informaziorik. «Errefusa organikoarekin ateratzeko egunean ate-

Enpresa gehiagotara iristea eta hondakinak jatorrian hobeto jasotzea da erronka

rako dute segur aski, zabortegira joaten direlarik. Usurbilgo kasuan, errefusarekin organikoa ateraz gero, ez zaio jasotzen eta hortaz, behartuta daude organikoaren egunean ondo ateratzera».

Ontzi arinen bilketa

San Markosek 71 enpresari bil-tzen zion 2016an. Garbitaniak Usurbilen 76ri bildu zion. «Atal honetan ere Hernaniko enpresetan %83tatik gehienak (gutxi batzuk ez dute atal hau sortuko segur aski) ontzi arinak errefusaren egunean aterako ditu, zabortegira botatzen dituztelarik».

Papera eta kartoiaren bilketa

San Markosen bilketa kopurua hain txikia ez izan arren (%52), Usurbilen egiten denarekin konparatuz gero (%85), Hernaniko tasa hobetzeko aukera haundia dagoela ikusten da.

Informazio eta aholkularitza pertsonalizatua

Gaikako sistemaren ezarpena urtarriaren 2tik aurrera egingo du Udalak, baina uztaillean hasi zen Garbitaniako hezitzaile bat enpresaz enpresa datuak bil-tzen bisita pertsonalizatuak egiten.

Horrekin batera, enpresa guztiei liburuxka, egutegi eta kartel bana banatzen ari da egunotan Udala, bilketaren ordutegiekin eta ezaugarrie-kin. Webgune berezi bat ere ari da Udala informazioa enpresen ordezkarien esku modu argian egon dadin: *poligonohondakinak.hernani.eus*. Horrela, zalan-

tzak argitzeko tresna bat eduki-ko dute beti eskura. Gainera, telefonoz deitzeko aukera ere izango dute enpresari-ek edo langileek, zalantzak argitzeko.

Ingurumenerako eta ekonomiarako onurak

Industrian sortzen diren hiri hondakinen bilketa bereganatzeak, ingurumenerako abantaila haundiak ditu, Udalaren ustez; jatorrian egiten den bilketa egokia baldin bada, gerora sailkatzea errazagoa baita, eta horrek birziklatze tasak hobet-zea ahalbidetzen du.

Era berean, Hernaniko herriguneko hondakinak eta Usurbilgo hondakin guztiak kudeatzen dituen Garbitania enpresa publikoaren baliabide-ak arrazionalizatzea ekarriko du, langileak, ibilgailuak, pabilioia eta gastu orokorrak modu eraginkorragoan baliatzeko au-kerak ematen duelako. ■

■ BETERRI BURUNTZA KOOPFABRIKA

Ekintzaile programaren bigarren edizioa hasiko da urtarriaren 17an

Izena emateko epea zabalik dago jadanik eta Gipuzkoako lau eskualdetan eskainiko da, baita Beterri Buruntzan ere.

KOOPFABRIKA ekintzail-eta sozialerako programa da, 2015ean Kooperatzen izena zuena, eta 2017an egungo ere-duan lehen adiz eskainia izan zena. Eskualdean hainbat sek-toretako hamar proiektu ingu-ruren sorreran eta kontsolida-zioan bidelaguntza eskaini ondoren, 2018rako izen-ematea irekita dago.

Gipuzkoa osoko proiektuek dute izena emateko aukera eta 2018an lau eskualdetan eskai-niko dituzte lan espazioak: Debagoienan, Beterri-Burun-tzan, lehen aldiz Bidasoa-Txingudín eta Oarsoaldean.

Ekintzail-etzari eduki sozial, kooperatibo eta eraldatzaileak eman nahi dio KoopFabrikak, tokian tokiko sarean garran-

tzia abiapuntu hartuta.

Hiru profiletako jendea

Hiru profiletako jendeari zuzen-tzen zaio programa. Batetik, proiektu edo ideiarene bat lan-tzen edo martxan jarri nahian direnak. Bestetik, orain arte elkarte forman jardunean aritu arren, profesionalizatu edo beste era batera antolatu nahi duten taldeak. Eta azke-nik, enpresen baitako barne-ekintzail-eta proiektuei dimen-tzio sozialetik ekiteko asmoa dutenak.

Trebaketa eta tutoretza

Formakuntzan arlo teoriko ko-muna lantzeaz gain, ekintzai-letza sozialerako tresnen era-bilpenean trebatu, eta KoopFa-

brikatik irtendako proiektuei tutoretza eskainiko zaie gara-pen eta saretzerako.

Doakoa, baina plaza mugatuak

Programan parte hartzea doa-koa da, baina plaza mugatuak daude. Datozen asteetan parte-hartzaileekin elkarrizketa fa-sea irekiko da. Horregatik, dei egin nahi diete interesatuei, KoopFabrikan izen emateko, *koopfabrika.eus* webgunean.

Beterri-Buruntzan, Olatu-koop sareko kooperatibek dina-mizatuko dute lurralde nodoa.

Twitter, Facebook eta Insta-gram sare sozialetan ere, pro-iektuaren egunerokoaren berri izateko aukera izango dute interesatuek. ■

■ ELIZA

Elkarteko penitentzi ospakizunak

Eguberrietarako prestaera bezala, elkarteko penitentzi ospakizunak izango dira Hernaniko eta Astigarragako elizetan. Gaur, 19:30etan, San Joan Bataiatzailea parro-kian. Bihar, 19:00etan, Floridako San Jose parro-kian izango da, eukaristi ospakizunaren barruan. Eta etzi, Ereñotzun, 19:00etan. Astigarragan, berriz, bihar 19:00etan; eta Urnietan etzi, 19:00etan. ■

■ GOAZEN 4.0

Goazenerako sarrerak gaur, salgai

Goazen 4.0 ohol-tza gainean ikusiko da Hernanin, abenduaren 28an, Biterin; eta gaur jarri-ko dira sarrerak salgai. Biterin bertan jarri-ko dira, bi txandatan. Sarreraren erdiak goizez salduko dira, 09:00-13:00; eta beste erdiak arratsalde-z 16:00etatik 20:00etara. 2,70 euro dira. ■

■ ELIZATXO ETA PORTU AUZOAK

Mugikortasuna hobetzeko bilera

Udalak, Portuko eta Elizatxoko auzotarrak eta Elizatxo ikastolako komunitatea gonbidatu ditu gaur, eremu horretan oinezkoen mugikor-tasuna eta espazio publikoa hobetzeko neurriak eta irtenbideak ados-teko bilerara. Elizatxo ikastolan izango da, 19:00etan. ■

■ ZABOR GREBA

Bihar hasiko da kale garbiketa greba

Bihar, 21:00etan, dira hastekoak Hernanin kale garbiketan aritzen diren langileak greban. Atez atekoak ez dute greba egingo. ■

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarte **Lan-taldea:** A. Arbelaitz, I. Goñi, L. Goñi, B. Los Arcos, I. Lujanbio, A. Moreno, J. Osa, M. Ramirez de Alda, L. Rekondo eta J. Zubitur. **Egoitza:** Larramendi 11(Hernani) ☎ 943 33 08 99 - 688 660 714.

Eposta: kronika@kronika.eus, astigarraga@kronika.eus, urumea@kronika.eus eta publi@kronika.eus. **Lege gordailua:** SS-400/2014 ISSN: 2341-2976

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga)
DYA: 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarraga) **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
✚ / **Egunez: Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087**

EGURALDIA
GAUR Eguna giro hotzarekin hasiko da. Egunaren lehen partean tarteka lainotsu egongo da, nahiz eta eguerdi partean ostarreak nagusitu. Aldiz, aratsaldean lainotuta geratuko da. **Min.3° / Max.11°**
BIHAR Euria, batik bat, kantauri isurialdean egingo du, eta goizaldean. Orduak pasa ahala atertzera egingo du, eta arratsaldean eta gauean nabarmen garbituko du. **Min.6° / Max.10°** (euskalmet)

ERRUGBIA

Erasoko puntuarekin konformatu da Hernani

39-25 galdu du Cisnerosen aurka, nahiz eta defentsako bonusa ere gertu izan. Puntu batean aldendu du promozio postua.

URTEA porrotarekin amaitu zuen Hernanik, Madrilén. Cisnerosen Central zelai bikainean 39-25 galdu zuen, baina gutxienez erasoko bonusa lortu eta puntuarekin bueltatu ziren etxera. Hala ere, zapore garratz haundiagoa geratu zen gozoa baino, bigarren puntua ere gertu izan baitzuten, baina azkenean ihes egin zien.

Gutxienez, promozio postua puntu bat gehiagora aldendu du Polidoriren taldeak. Orain, La Vila lau puntura dago. Partidua ezin hobeto hasi zuten hernaniarrek. Lehen minutua bete aurretik Etxeberrriak lehen entsegua lortu eta 0-7 aurreratu zen Hernani. Hala ere, pozak ez zuen asko iraun: 13garren minuturako Cisnero-

sek irauli zuen partidua (14-7). Lehen zatia 28-15 amaitu zen, eta bigarren zatian dena erabakitzeko zegoen. 28-20ra hurbildu zen Hernani, bonusa lortuz, eta garaipenarekin ere amesteko parada egon zen. Azken minutuetan saiatu ziren hernaniarrak gehiago hurbiltzen, nahiz eta aurkariak markagailuan ihes egin azkenean. **II**

FUTBOLA

Goiko postuetan, Hernani

CD HERNANIKO taldeek emaitza ezin hobeak lortu dituzte asteburuan. Ohorezko Erregional mailan, Hernanik Bergara liderra hartu zuen Zubipen, eta

garaipen itzela lortu zuten hernaniarrek, 2-0. Emaitza honekin, sailkapenean hirugarren kokatu dira, Bergara bi puntura dutela, eta Ordizia, lider berria-

tik, hiru puntura. Jubenilen Ohorezko Mailan, Hernanik 3-0 irabazi zion Pamplonari. Esperantzarako hiru puntu, dudarik gabe. **II**

KIROL TABLA ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA			ERRUGBIA		
Nut. Oheroko Erag.	Hernani-Bergara	3-0	Oheroko Maila	Cisneros-Hernani	42-25
Nut. Erag. Profer.	Hernani-Silabona	0-1	Señor B	Hernani-Dibar	55-7
Nut. Oher. Jaki. Ma.	Hernani-Pamplona	3-0	Sub. 18	Urte. Silabon-Hernani	15-37
Nut. Defensib.	Aldizga-Hernani	4-0	Sub. 15	Urte. Silabon-Hernani	26-7
Nut. Oheroko Jaki.	Marabona-Hernani	3-0	ESKU PELOTA - Giza-erakunde Txapelketa		
Nut. Jaki. Igaz.	Hernani-Astigarraga	0-5	Nagusiak	Maribel Lasaola/Guztekoa	22-5
Nut. Kari. Oher. Maia	Hernani-Estebanena	4-0	Nagusiak	Laguarda/Enrika Arizmendi	48-58
Nut. Kari. Igaz. Maia	Astigarraga-Hernani	0-1	Nagusiak	Xabier Paredes/Adrián	37-49
Nut. Kari. Igaz. Maia	Hernani-Tortosa	5-1	Nagusiak	Itziar/Donostia	40-9
Nut. Oheroko Jaki.	Hernani-Tolosa	0-7	Nagusiak	Anda Tejada/Ortiz	30-3
Nut. Oheroko Jaki.	Hernani-Urte	3-3	Kudeak	Itziar/Peñalba	38-22
Nut. Oheroko Jaki.	Rosal/Sabidoz/Hernani	5-0	Kudeak	Itziar/Mikel Lasa	38-17
Nut. Def. Igaz. Maia	Internacional B-Hernani	5-0	Kudeak	Unai Huidobro/Agustín	22-5
ESKUBALDIA			ESKU PELOTA - Txapelketa garbierak		
Nut. Kudeak	Tolosa/Hernani/Sabidoz	9-15	Infantak	Donostia/Santesteban	18-15
Nut. Kudeak	Hernani/Astigarraga/Sabidoz	24-24	Infantak	Pamplona/Enrika	18-17
Nut. Defensib.	Aldizga/Hernani/Sabidoz	9-29	Unai Oñe Tx.	Donostia/Aspeltza/Itziar	19-19
Nut. Defensib.	Bera-Bera/Hernani/Sabidoz	28-12	Unai Oñe Tx.	Donostia/Itziar/Aspeltza	18-3
Nut. Defensib.	Angulo/Hernani/Sabidoz	25-71	Unai Oñe Tx.	Sabidoz/Itziar/Mikel Lasa	18-22
Nut. Defensib.	Egoz/Hernani/Sabidoz/Donostia	28-15	Unai Oñe Tx.	Oñe/Donostia/Sabidoz	22-14
SARREKALDIA					
Copacabana 2. maila	Hernani CD Internacional	70-72	ERRUGBIA		
Junior maila	CD Internacional/Hernani	46-53	5. partida	Astigarraga/Donostia/Urte	35-34
Kudeak maila	Casa/Donostia/Hernani	34-40	6. partida	Makela III/Donostia/Hernani	37-49
BOLIBOLA			7. partida	Unai Aguirre/Donostia II/Donostia	26-49
Nut. Kudeak	Astigarraga/Hernani	2-3	8. partida	Hernani IV/Lasarte/Seguros/Garai	26-39
Nut. Defensib.	Sabidoz/Hernani	3-5			

IRAGARKI MERKEAK

Garaje itxia alokagai, 17 m2, Golderaz kalean Correosen parean. **Deitu: 687 841 817**
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,...
Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

†

ANDRES GALDOS BILBAO
JAUNA
(Rosa Mari Telleriaren alarguna)
Atzo hil zen, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta



- Goian Bego -
Seme-alabak: Aitor eta Irene, Jagoba eta Maite, Mikel eta Oihana; bilobak: Eneritz eta Ainitze, Intza eta Ekhi; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.
Haren animaren alde otoiiz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **BIHAR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2017ko abenduaren 18an

OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN dago.

†

MARIA TERESA CORELLA ARANALDE
ANDREA
Atzo hil zen, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta



- Goian Bego -
Anai-arrebak: Maria Pilar eta Julián Villar, Cecilia (†) eta Alfredo Pérez (†), Luis eta María Teresa Ayestaran; ilobak, lehengusuak, gainerako ahaideek eta bere zaintzaileak: Leiby Lezama.
Haren animaren alde otoiiz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **BIHAR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2017ko abenduaren 18an



ROSARIO CILLERO VAZQUEZ
Besarkada handi bat, familiari
HERNANI ERRUGBI ELKARTEKO ZURE LAGUNAK
Urnietan, 2017ko abenduaren 18an





JOSE MARIA ZAPIAIN ARRESE
Esan, erakutsi eta eman diguzun guztiagatik, zure ereduak gudan iraungo du. Maite zaitugu atona.
Bilobak: Xuban, Malen, Josu, Libe, Ekain eta Etxahun
Urnietan, 2017ko abenduaren 18an



Ginekologoa daukazu Hernanin, María Gregorio Alzua medikua
Hernaniko mediku zentroan (Urbietta kalea 18, beheak)
// Urteroko azterketak **//** Amniocentesiak
// Haurdunaldi kontrolak **//** Antisorgailuen kontrola
// Erditzeak **//** DIU...
// Kirurgia **//** Azkura, onddoak

Hilzordua eskatu
943 55 76 72ra
deituz

ORDUTEGIA
10:00etatik 13:00etara
eta 16:00etatik 18:30etara

